



ROLEN ADIBIDEAK

BRIEF SUMMARY OF ACTIVITY

Musika mota orok dakartza bere estereotipo propioak. Ala ba al da tartekorik? Zer dela eta erakusten ditu hip hopak emakume mordoa galtza motzekin eta titi eta ipurtalde handiekin? Zer dela eta darabiltzate rap kantari beltzek esamolde lizunak? Zergatik dira Eurohouse-ko DJak txuriak eta epelak? Modernoa al da igerilekuaren inguruan dantzatzea eta auto handia gidatzea? Ba al dago mutil-talderik ez duena horrela dantzatzen?

AIM OF THE ACTIVITY

Komunikabideetan ematen den generoaren errepresentazioari dagozkion arloak hobeto ulertzea. Partehartzaileei hurreratzea komunikabideei buruzko zenbait ezagutza.

EXPECTED OUTCOMES

Partehartzaileek honakoa jasoko dute: hobeto ulertzea irrati-komunitarioen beharra erronka botatzeko ohiko irratiei genero errepresentazioei loturiko mezuei dagokienez. Komunikabideei buruzko zenbait oinarritzko ezagutzak.

INFORMATIONS FOR TRAINERS

EXPERIENCE AND SKILLS REQUIRED

Komunikabideen inguruko oinarritzko gaitasuna.

INFRASTRUCTURE, SETTING, RESOURCES

Apartekorik ez

LENGTH

40 minutu

MATERIALS

Internerako konexiodun ordenagailua, papera, boligrafoak

DESCRIPTION

HOW THE ACTIVITY SHOULD TAKE PLACE

Partaideek egungo bideoklipak ikusiko dituzte 20 bat minutuz. Deskribatu egingo dute gizon eta emakumeek zein itxura daukaten horietan. Zer egiten dute? Zein rolekin ageri dira? Oharrak jaso eta ordenatu egingo dituzte: zein musika estilotan ageri dira zein rol? Zein jokabide dute gizon eta emakumeek? Zein erlazio ematen dira haien artean? Estereotipoak al dira? Zer dela eta existitzen dira estereotipo horiek? Irudikapen ezberdinak aurkezten al dituzte?

RECOMMENDED MAX. NUMBER OF PARTICIPANTS AND TRAINEES TO TRAINERS RATIO

6 partehartzaile hezitzaileko (4 ikasteko zailtasunak baldin badauzkate)

RISK AND POSSIBLE ADAPTATION

VARIATIONS

TIPS FOR TRAINERS

Bideoklip kopuruak 6 eta 10 bitartean behar luke, musika estilo anitzekin: dantzatzeko musikak, rock alternatiboa, hip hopa, folk musika... Onena litzateke partaideek bideoklip osoak ikustea (edo 2 minutu baino gehiagoz gutxienez)

PARTICIPANTS

Ariketa honek ez du aparteko ezagutzarik edo abileziarik eskatzen. Erabilgarria da pop komertzialari lotuak diren gazteentzat. Ebaluaketa zorrotza behar du. Partaideek jatorri soziokultural anitzak badauzkate, ebaluaketak eztabaida sakonago batera eraman gaitzake. Hizkutzak ezberdinak badarabiltzate luzeago ere jo dezake ebaluaketak. Ikusmen urritasuna edo itsutasuna badaukate, ezin gara daiteke jarduera hau. Dena dela, estereotipo akustikoekin lan eginez gero antzerako ondorioetara bidera gaitzake jardunak. Nork erreproduzitzen/errepikatzen dituen estereotipoak eztabaidatzea ere baliagarria izan daiteke seguraski.

ANALYSIS AND EVALUATION

Behin estereotipoak jasotakoan garrantzitsua da adibide ezberdinak aurkeztea: Hip hop / Indie Rock / Eurohouse musikak oraindik erakargarriak al dira genero rola gauzatzeko? Funtzionatuko ote luke komunikabide komertzialetan? Zergatik bai/ez? Gizarteko zein kolektibo da musika ekoizleon jomuga? Nor da ekoizlea?

SCHEDULING

Edonoiz